

## 2024- 2025 IKASTURTEKO MATRIKULA LIBREA

### Informazio-laburpena

- **Nor matrikulatu ahal da?**

Matrikula Librean, 2025an 16 urte beteta dituen edozein pertsona matrikula daiteke ofizial modura, ez badago matrikulatuta edota ez badu ziurtagiri ofizialik hizkuntza berean.

- **Zertan matrikulatu?**

Edozein hizkuntzatan. Pertsona bakoitza hizkuntza berean matrikulatu ahal izango da, eskola bakar batean eta deitutako mailetako bakar batean.

Hizkuntza batean baino gehiagotan matrikulatu nahi izanez gero, bakoitzeko eskaera bat egingo da.

- **Noiz?**

Otsailaren 3tik 10era arte.

- **Non?**

Honen bidez:

<https://ikasgunea.euskadi.eus/eu/>

Sartzeko, lehenik eta behin identifikatzaile balioudun batekin erregistratu behar dut. Identifikatzaile hori hauetariko bat izan daiteke:

- NAN Nortasun Agiri Nazionala, edo
- AIZ, Atzerritarren Identifikazio Zenbakia, edo
- DIE, Hezkuntzako Identifikazio Dokumentua (ikaslearen zenbakia)

Eta posta elektronikoko balioudun batekin eta pasahitzarekin sartu ahalko naiz plataformara.

Orain arte pasaportearekin edo NAN eta AIZ ez den beste edozein nortasun-agirirekin matrikulatu banaiz, nahitaez erregistratu beharko naiz Ikasgunean DIE (ikasle-zenbakia) zenbakiarekin. DIE ez badaukat, eskolan eskatu beharko dut.

Matrikula aplikaziorako sarbidea Ikasgunearen bitartez egingo da. Ikasgunean sartzeko helbide elektronikoa eta plataforman erregistratzeko zehaztu dudako pasahitza erabiliko ditut.

- **Baina, ez dakit zein maila dudan, zer egin behar dut?**

Ez dakidanez zein mailatan matrikulatu behar dudan, komeni zait autokokapeneko probak egitea. Eskolaren webgunean edo <https://www.euskadi.eus/hizkuntzen-irakaskuntza-hizkuntza-eskola-ofiziala/web01-a3hheoi/eu/> → Mailaketa probak webgunean aurki ditzaket.

Egin eta zuzendu ondoren, lortutako puntuazioaren arabera, proban bertan maila baxuagoko edo altuagoko beste bat egitea aholkatuko zait, edo aholkatuko zait zein mailatan egin behar dudan matrikula.

---

- **Dokumenturen bat aurkeztu behar dut?**

Matrikulazio hasieratik **otsailaren 10era arte**, Ikasguneako nire online eskabideari dokumentazioa erantsi ahal izango diot:

- NANA edo AIZ badut baina nortasun-datuak egiaztatzeko eta kontsultatzeko zerbitzuaren erantzuna OKERRA da. Kasu horretan, dagokion identifikazio-agiria aurkeztu beharko dut.

- ez dut NAN edo AIZrik. Kasu honetan, nire herrialdean emandako nortasun agiri ofiziala aurkeztu beharko dut.

- familia ugaria banaiz EAetik kanpo, edo Euskal Autonomia Erkidegoak emandako familia ugariaren titulu ofiziala badut ere, eta familia ugariaren kasuistika alegatu arren, aplikazioak adierazten badit dokumentazioa aurkeztu behar dudala.

- terrorismoaren biktima banaiz.

- hezkuntza premia bereziak baditut, eta matrikula eskaeran argudiatu dut azterketetarako egokitzapen beharra.

Nolanahi ere, onartuen eta baztertuen **behin-behineko egoera** kontsultatu behar dut, ez dela dokumenturik aurkeztu behar egiaztatzeko.

Erreklamazioa aurkeztu behar badut, Ikasgunearen bidez egin ahal dut **otsailaren 17tik otsailaren 19ko 13:00ak arte**.

- **Eta noiz ordaindu behar dut?**

**36,18€** ordaindu behar ditut **otsailaren 3tik 12ra arte**, helbide honetan sartuta: <https://ikasgunea.euskadi.eus/eu/>

Ordainketa egiteko bi modu ditut:

- On-line: kreditu-txartel batekin edo banka elektronikoaren sistemaren bidez.

- Off-line: ordainketa-gutuna inprimatuko dut eta finantza-erakunde batera edo kutxazain automatiko batera joango naiz.

- **Nola dakit onartua izan naizen?**

**Otsailaren 17an** onartutakoen eta ez onartutakoen **behin-behineko egoera** eta **otsailaren 26an behin betiko egoera** hemen kontsultatzuz: <https://ikasgunea.euskadi.eus/eu/>

**Oharra:** 2024/2025 matrikula libreari buruzko informazio guztia 2013ko uztailaren 3ko onarpen-aginduan (2013-07-22ko EHAA) eta 2024ko maiatzaren 21eko Ebazpenean aurki daiteke (<https://www.euskadi.eus/hizkuntzen-irakaskuntza-hizkuntza-eskola-ofiziala/web01-a3hheoi/eu/> webgunean argitaratua).